

# AKTA

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2021eko apirilaren 29a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:30    **BUKATZEKO ORDUA:** 20:10

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Anuska Esnal Oliden

**Zinegotziak**

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Iburguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

Andoni Torres Fernandez zinegotziak (EAJ) telematikoki parte hartu du bilkuran.

## Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko abenduaren 23ko ezohiko bilkurako eta 2021eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkurako akten zirriborroak.
- 2.- 2021eko udal-aurrekontuaren lehen hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 3.- 2021eko lehen hiruhilekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 5/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, udal-kiroldegiko 15 langileri ordaindu beharreko soldata osagarria, 2021eko urtarrilaren 29tik otsailaren 12ra udal-eraikina itxita egon zelako COVID-19aren pandemia-egoera dela eta.
- 6.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal-arautegiari.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko udal-kanpinean igerileku berria egiteko obrak, hornidura eta instalazioa kontratatzeko baldintza administratibo partikularrak eta baldintza teknikoak.
- 8.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO ABENDUAREN 23KO EZOHICO BILKURAKO ETA 2021EKO URTARRILAREN 28KO OHIKO BILKURAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork zirriborroen edukiari buruzko inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** udalbatzarraren 2020ko abenduaren 23ko ezohiko bilkurako eta 2021eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkurako akten zirriborroak.

### **2.- 2021EKO UDAL-AURREKONTUAREN LEHEN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

### **3.- 2021EKO LEHEN HIRUHILEKOARI DAGOKION ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 5/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2021 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 59.500 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko apirilaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** udal-aurrekontu propioaren 5/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. 5/2021 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 59.500 euroko zenbatekoa du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko lekua:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-KIROLDEGIKO 15 LANGILERI ORDAINDU BEHARREKO SOLDATA OSAGARRIA, 2021EKO URTARRILAREN 29TIK OTSAILAREN 12RA UDAL-ERAIKINA ITXITA EGON ZELAKO COVID-19AREN PANDEMIA-EGOERA DELA ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko apirilaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** udal-kiroldegiko 15 langileri ordaindu beharreko soldata osagarria, 2021eko urtarrilaren 29tik otsailaren 12ra udal-eraikina itxita egon zelako COVID-19aren pandemia-egoera dela eta. Soldata osagarri horren zenbatekoa 4.098,80 eurokoa da.

**6.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL-ARAUTEGIARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna batzordeak 2021eko martxoaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal-arautegiari.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** udal-arautegi hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-arautegi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada ohar edo iradokizunik aurkezten, behin betiko onartutzat joko da arautegia, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL-KANPINEAN IGERILEKU BERRIA EGITEKO OBRAK, HORNIDURA ETA INSTALAZIOA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK ETA BALDINTZA TEKNIKOAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Turismoa, Merkataritza eta Ostalaritza batzordeak 2021eko martxoaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** Orioko udal-kanpinean igerileku berria egiteko obrak, hornidura eta instalazioa kontratatzeke baldintza administratibo partikularrak eta baldintza teknikoak.

Emandako botoa azaltzeko, Bakarne Oriden zinegotziak hartzen du hitza, Turismoa, Merkataritza eta Ostalaritza batzordeko lehendakaria den aldetik, eta adierazten du udal-kanpineko instalazioetan proiektatutako igerileku berriak bi premia hauei erantzuten diela: batetik, irisgarritasuna bermatzea eta, bestetik, igerilekua estaltzea. Adierazten du, azkenik, igerileku estaliaren helburua udal-kanpinaren estazionalitatea gainditzea dela eta, hartara, instalazioak urte osoan ireki ahal izatea.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean, eta adierazten du udal-kanpina Orioko udalerriko altxorretako bat dela, diru-sarrera iturria delako Udalarentzat eta, horrez gain, lanpostuak sortzen dituelako herrian. Beraz, igerilekuko proiektua albiste ona da, balioa eransten diolako Orioko turismoari eta lagunduko duelako udal-kanpinaren irekiera desestazionalizatzen.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoren jasotzen den erabaki hau hartu du, alde zurreratik **AHO BATEZ** urgentetzat jota [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

## **9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AITATASUN-LIZENTZIA AMATASUN-LIZENTZIAREKIN PAREKATZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko apirilaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** aitatasun-lizentzia amatasun-lizentziarekin parekatzea, era honetara: erditzearen kasuan, funtzionarioek, generoa kontuan hartu gabe, 126 egun naturaleko lizentzia izango dute (18 aste), 150 egunetara luza daitekeena erditze anizkoitzaren kasuan (horietatik 112 egun natural (16 aste) GSINaren ordainketa eskuordetuaren bidezkoak dira).

Udalbatzarraren erabaki honek atzerako eragina du 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

## **8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**



Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, une gris hauetan, oriotarrei ilusioa transmititzeko beharra sentitzen duela.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**